


Denboraren makina

Nagore Irazustabarrena

Prentsa horiz tintatu zuen mutikoa



Ezkerrean, Randolph Hearst; eskuinean, Joseph Pulitzer; eta bien artean, Yellow Kid komiki pertsonaia. Bien arteko lehiak prentsa sentsazionalista bultzatu zuen eta komikiari esker esan zitzaion "prentsa horia" tankera horretako kazetaritzari.

NEW YORK, 1897. Lehenengoz "prentsa horia" terminoa erabili zen *New York Press* egunkarian, hiriko beste bi egunkari sortzen ari ziren kazetaritza modu berria kritikatzeko.

New York World egunkaria Joseph Pulitzerren (1847-1911) sare editorialeko egunkaririk garrantzitsuenak zen. Irakurlearen arreta bereganatzeko, albiste deigarriak eta irudi ugari argitaratzeko joera zuen hungariarrak. Haren arerio nagusiak, *New York Journal* egunkariaren jabe zen William Randolph Hearstek (1863-1951), bide berari heldu zion. Izan ere, bata egiten zuen edozerk bestearen erantzuna eragiten zuen. Horrenbestez, sentsazionalismoa nagusitu zen. Pulitzer bera "odola lehen orrialdean" erakustearen aldekoa zen. Eta, diotenez, Hearstek, erreportaje sorta baten bidez, 1898ko Kubako gerra piztea bultzatu zuen, La Habanako badiaren *Maine* itsasontzi estatubatuarra istripuz urperatu zela aprobetxatuz. Istripuak, krimenak, adulterioak... Denak balio zuen salmentetan gora egiteko eta arerioa menpean hartzeko, baita albisteak asmatzea ere.

Edonola, lehiak onura ere ekarri zion kazetaritzari, biek ala biek berri-

kuntzak etengabe ezartzera behartu baitzuten bestea. Baina ez zeuden bakarrik prentsaren merkatuan eta, lehia betean, 1897an, *New York Press*ek bi lehiakideen joera kritikatzearabaki zuen.

Gero eta irudi gehiago sartzeko joera horretan, *World* nahiz *Journal* egunkarietan *Yellow Kid* izeneko komikia argitaratu zen. Eta *Pressek* pertsonaia arrakastatsua baliatu zuen bien aurkako hitz jokoa egiteko, ingelesezko *yellow* hitzak, hori kolorea izendatzear gain, krudela eta koldarra ere esan nahi baitu.

Orson Wellesen *Citizen Kane* filmeko protagonistak Randolph Hearst omen du oinarri. Pulitzerren izena, aldiz, puntako kazetaritzari lotuta dago gaur egun; hiltzean, dirutza utzi zion Columbiako Unibertsitateari, hark kazetaritza fakultatea eraiki zezan, eta instituzio horrek sortu zituen Pulitzer sari ezagunak.

Horiz jantzitako haur jaioberri hura, berriz, ederki hazi zen eta egun, oraindik, mundu osoan zehar dabil, zenbait egunkaritako lehen orrialdeak odolez eta morboz betetzen.

Arrastoak

Emakumezko gondola gidaria, 900 urte eta gero

VENEZIA 120 uharte txikiz osatua dago, eta duela 900 urte gondolak erabiltzen hasi ziren garraiobide moduan. Azken mendearen garraioa modernizatu eta motordun ontziak nagusitu dira hirian, baina gondolak erabiltzen dira oraindik turismorako.

Gondolak gidatzeko lanbidea gizonei mugatua egon da orain artean, baina berriki egindako probetara hiru emakume aurkeztu ziren eta horietako batek lanpostua lortu du. Giorgia Boscolo du izena Veneziako lehen emakumezko gondola gidariak, 23 urte ditu eta aita ere gondolaria du. Dante aitak dioenez, "gondola eramateko indarra baino garrantzitsua goa da esperientzia, eta Giorgiak bizitza osoa darma gondola gainean".



SHEJAPAN.COM

900 urtetan lehenengoz, emakume batek gondola gidatuko du Venezan, lanpostua lortzeko probak gaindituta.